

**SARRIGURENGO EKOHIRIAREN UPSAREN ALDAKETARI BURUZKO PARTAIDETZA
PROZESUAN AURKEZTUTAKO EKARPENEN BALORAZIOA**

Sarrigurengo Ekohiriaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketan (DD-14 lurzatia eta ECP-1A eta DD-14 lurzatiaren arteko oinezkoentzako pasabidea) egindako partaidetza prozesuan aurkeztu diren ekarpenen balorazioa jasotzen du dokumentu honek.

Jasotako ekarpenak:

EKARPEN zk.	DATA	PARTE-HARTZAILEA
1	2021/04/06	Beatriz Bueno Drago
2	2021/04/06	Felipe Solano Bueno
3	2021/04/06	Óscar Sola Garralda
4	2021/04/07	Daniel Solano Bueno
5	2021/04/07	Javier Recalde Equiza

1. EKARPENA

Parte-hartzailea BEATRIZ BUENO DRAGO

Laburpena Honako hau adierazten du:

1.- Oinezkoen pasealekua kentzearen aurkakoa da.

Sarrigurengo hezkuntza-zuzkiduren kokapenari buruz duen iritzia azaldu du, igerilekuen ondoan kokatu beharko liratekeela uste du, eta ez dela bizilagunek erabil dezaketen eremu bat kendu behar.

Ez du aurkezten proposamenik edo planteatutakoaren ordezeko alternatibarik.

Txostena Egindako ekarpenari dagokionez, txosten hau egin da:

1.- Ekarpenak aldaketan planteatutakoaren kontrako iritzia besterik ez du ematen, bai oinezkoentzako pasabidea kentzeari dagokionez, bai DD-14 lurzatiari irakaskuntzako erabilera emateari dagokionez.

Zuzkiduren kokapenari dagokionez, ez da espediente honen xedea, Sarrigurengo UPSaren aurreko aldaketa batean horrela definitutako zuzkidura-espazio baten gainean egiten da oraingo planteamendua.

Ez dago antolamenduan baloratzeko eta aintzat hartzeko proposamenik edo alternatibarik.

Proposamena Horrenbestez, ekarpena kontuan ez hartzea proposatzen da.

2. EKARPENA

Parte-hartzailea FELIPE SOLANO BUENO

Laburpena Honako hau adierazten du:

1.- Haren ustez, institutua eraikitzeak auzoaren bizi-kalitatea galtzea dakar (trafikoa, biolentzia akustikoa eta patioko zarata handituko baitira), eta inguruan ikastetxe asko daude.

Ez du aurkezten proposamenik edo planteatutakoaren ordezeko alternatibarik.

Txostena Egindako ekarpenari dagokionez, txosten hau egin da:

1.- Ekarpenak aldaketan planteatutakoaren kontrako iritzia besterik ez du ematen, bai oinezkoentzako pasabidea kentzeari dagokionez, bai DD-14 lurzatiari irakaskuntzako erabilera emateari dagokionez.

Ez dago antolamenduan baloratzeko eta aintzat hartzeko proposamenik edo alternatibarik.

Proposamena Horrenbestez, ekarpena kontuan ez hartzea proposatzen da.

3. EKARPENA

Parte-hartzailea ÓSCAR SOLA GARRALDA

Laburpena Honako hau adierazten du:

1.- Adierazi du ez dagoela ados oinezkoentzako pasealekua kentzearekin, korridore ekologiko batekin lotzen baitu eta, gainera, uste du ez dela beharrezkoa kentzea ikastetxearen funtzionamendu egokirako.

2.- Kirol pista publikoa orain dagoen bezala (irekia eta Elizmendi kalerantz) integratzea proposatzen du, bizilagunek libreki erabiltzen jarrai dezaten.

Haren ustez, Elizmendi kalearen frontean eraikitzen bada eta pistek korridore ekologikora begira badaude, institutuan dauden bezala, espazioa gazteentzako babesleku bihurtuko da, eta bertan bizilagunek nahi ez dituzten erabilerak izanen dira.

Gainera, institutu berriaren sarbidea Espainiako etorbidetik egitea proposatu du, Elizmendi kaleak trafiko handiagoa izan ez dezan.

Txostena Egindako ekarpenari dagokionez, txosten hau egin da:

1.- Oinezkoentzako pasealekua kentzeko iritzitari dagokionez, ez dago kontuan hartu beharreko planteamendurik.

2.- Kirol pistari dagokionez, lehenik eta behin, parte-hartzaileari esan behar zaio partzela hori zuzkidura-lurzati batean dagoela (DD-14); gaur egun bertan egiten ari den kirol-erabilera irekia (eta zakurren aisiarako eremuarena) finkatzeko, planeamendua (UPSa) egokitu beharko litzateke, erabilera horiek ez baitatoz bat indarrean dagoen erregulazioarekin.

Nolanahi ere, Sarrigurengo Ekohiriaren UPSaren aldaketak ez du zehaztuko zuzkidura-lurzatiaren barne antolamendua. Hori, zuzkidura-erabilera publikoko lurzati guztietan gertatzen den bezala, askatasunez eginen da eraikinak proiektatzerakoan.

Hala ere, proposamena Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzura igorri da, eraikin berria proiektatzen den unean azter dezaten, bidezkoa bada.

Proposamena Horrenbestez, ekarpena kontuan ez hartzea proposatzen da.

4. EKARPENA

Parte-hartzailea DANIEL SOLANO BUENO

Laburpena Honako hau adierazten du:

1.- Elizmendi kalean institutua handitzea berriz aztertzeke eskatu du, herritarren lasaitasuna trafiko eta zarata arazoengatik amaituko dela uste baitu.

Ez du aurkezten proposamenik edo planteatutakoaren ordezko alternatibarik.

Txostena Egindako ekarpenari dagokionez, txosten hau egin da:

1.- Ekarpenak proposatutako planteamendua berraztertzeke eskaera besterik ez du egiten.

Ez dago antolamenduan baloratzeko eta aintzat hartzeke proposamenik edo alternatibarik.

Proposamena Horrenbestez, ekarpena kontuan ez hartzea proposatzen da.

5. EKARPENA

Parte-hartzailea JAVIER RECALDE EQUIZA

Laburpena Honako hau adierazten du:

1.- Partaidetza prozesuaren eraginkortasunik eza, auzokideen komunitateei ez baitzitzaien garaiz jakinarazi martxoaren 23ko foro digitala, informazioa eskuratzea eta parte hartzeko eskubidea erabiltzea eragotziz. Hori dela eta, foroa errepikatzea edo ekintza osagarriren batekin zuzentzea proposatzen du.

Finken administrazioak auzokideei 2021eko apirilaren 2an bidalitako jakinarazpena aurkeztu du.

2.- Adierazi du ez dagoela ados oinezkoen pasabidea kentzearekin, eta bide publikoaren gaineko aireko pasabidea iradoki du.

Halaber, egungo kaleko eremu batzuei zabalera handiagoa ematea planteatu du, pasabidearen tamainak egin behar den eraikinarekiko hiri-proporzio eta -protagonismo egokia izan dezan, eta, aldi berean, ikastetxearen eta haren espazio libre eta aisia-guneen funtzioei zerbitzua eman ahal izateko.

Bere ustez, aldatu egiten dira Ekohiriaren diseinuaren printzipio gidariak, paisaiarekiko eta korridore ekologikoarekiko iragazkortasun perimetrala galaraziz. Pasabideak hesi-efektu osoa saihesten du, eta oinezkoentzako bide-sarea aberasten du.

Printzipio gidari horien ildotik, zuzkidura-lurzatiako eraikuntzaren altuera mugatu beharko litzatekeela uste du, jatorrizko familia bakarreko etxebizitzena (B+1) edo antzeko bat jarritz.

Gogoratu du pasabidea 100 etxebizitza baino gehiagori zerbitzua ematen dien auzokideen patio batekin lerrokatzen dela.

Haren ustez, 250 metroko fronte zeharkaezineko superetxesail bat sortuko da, antolamendu eskala orokorretik kanpo.

3.- Zuzkidura-lurzatiaren erabilera aldaketari dagokionez (erabilera soziokulturala izatetik hezkuntzako erabilera izatera), aldaketa honen bidez bermatu beharko litzateke erabilera soziokulturala Sarrigurengo beste zuzkidura-lurzati batera lekualdatzen eta berariaz esleitzen dela.

4.- Partaidetza prozesuan interesatutzat jotzeko eskatzen du.

Txostena

Egindako ekarpenari dagokionez, txosten hau egin da:

1.- Partaidetza prozesuari dagokionez, martxoaren 23an egindako foro digitala Sarrigurengo UPSa aldatzeko herritarren partaidetza prozesuaren parte zen. Online saio informatiboa zen, proposamena ezagutarazteko eta parte-hartzaileen ekarpenak eta iradokizunak zuzenean jasotzeko.

Horretarako, aldaketan interesa izan zezaketen pertsoneri parte hartzeko gonbita egin zitzairen (udal ordezkariak, ikastetxeen zuzendaritzak, guraso elkarteak eta jabeakideen komunitateak). Gainera, Eguesibarko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren partaidetzako web-orrien bidez, interesa zuen edonor konektatu ahal izan zen.

Foro digitalerako deialdiaz gain, gonbitean partaidetzako web-orri horiek adierazten ziren, non dokumentazioa kontsulta zitekeen, eta helbide elektronikoa bat ematen zen ekarpenak aurkezteko.

Epe luzea ezarri zen (apirilaren 7ra arte) ekarpenak aurkezteko, eta guztira 5 jaso ziren.

Beraz, uste dugu eraginkortasunik eza ez dela izan.

2.- Oinezkoentzako pasabidea ez kentzeko, aireko pasabide bat eraikitzeari dagokionez, alternatiba hori baloratu eta baztertu egin zen ikastetxearen funtzionaltasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-arrazoiengatik, eta, gainera, uste dugu pasabidea kentzeak ez duela disfuntziorik eragiten Ekohiriaren hiri-antolamenduan.

Beraz, ez da bidezkoa, oinezkoentzako pasabideari hiri-protagonismo handiagoa emateko, kalea handitzeari buruzko proposamen hau kontuan hartzea.

Ekohiriaren iragazkortasunari eta aipatutako diseinuaren printzipio gidariei dagokienez, ezin da ulertu oinezkoen pasabide hori horren oinarria denik; izan ere, dagoen lehen etxebizitza-frontean eteten da. Izan ere, Sarrigurengo Ekohiriaren UPSak oinezkoentzako ibilbidetzat jotzen dituen bideen artean ez dago.

Altueraren mugari dagokionez, ez gatoz bat Sarrigurengo Ekohiriaren UPSaren printzipio gidariei eraikinaren altuerak B+1 baino handiagoa izateko aukera ez duenik.

Sortzen den etxesailaren dimentsioari dagokionez, nahiz eta bi lurzatiek (ECP-1A eta DD-14) osatzen duten etxesailaren frontea inguruko etxesailena baino luzeagoa izango den (ez, ordea, Sarrigurengo zuzkidura edo ekipamendu erabilerako beste lurzati batzuen), eraikuntza-fronteak ez du halako neurri handirik izango, izan ere, gaur egun ECP-1A lurzatian dagoen eraikinak eta parean duen etxebizitzak antzeko tamaina dute.

3.- DD-14 lurzatirako adierazitako zuzkidura-erabilera kulturala orientagarria da, UPSaren araudiak dioenez; beraz, ez da bidezkoa kultur erabilera beste lurzati bati esleitzea.

Gaur egun, erabilera zehatz esleiturik ez duten ekipamendu-lurzatiak daude (balioaniztunak), kultura-erabilerak har ditzaketanak.

4.- Parte Hartzeko Planak inguruko higiezin jabekideen komunitateak interesdun gisa hartzen ditu partaidetza prozesuan:

- Kale hauetako higiezin jabekideen komunitateak, hain zuzen: Ibia 18-28, Elizmendi 9-19, Urederra 5-7 eta Espainiako etorbidea 8-12.
- Eta kale hauetako higiezin jabekideen komunitateak: Ibia 10-16, Uralar 5-7, Elizmendi 1-7 eta Urederra 6-8.

Interesduna komunitate horietako batekoa izan daitekeen arren, berariazko eskaera egin duenez, ez dago eragozpenik partaidetza prozesuan interesdun gisa sartzeko.

Proposamena Horrenbestez, ekarpena zati batean kontuan hartzea proposatzen da, txostenean adierazten den bezala, eta parte-hartzailea partaidetza prozesuan interesduntzat jotzea.